

AZALPEN MEMORIA

2025 AURREKONTUA

I. Ezaugarri orokorrak

UPV/EHUren Estatutuen arabera, unibertsitateak urteko aurrekontu bat izango du, bakarra, publikoa eta orekatua, eta urte naturaleko sarrerak eta gastuak bilduko ditu. Errektoreak zuzentzen du aurrekontua prestatzeko prozesua eta Gobernu Kontseiluari aurkezten dio urtero, onar dezan. Gobernu Kontseiluak onartutako proiektua Gizarte Kontseiluan aurkezten da, behin betiko onar dezan.

Aurrekontua egitean, kontuan izan da indarrean dagoen aurrekontu araudia, bai autonomikoa bai Estatukoa. Bereziki, kontuan izan da 8/2024 Legea, abenduaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen.

Era berean, diru sarreren aurreikuspenetan, aintzat hartu da Hezkuntza sailburuaren 2024ko ekainaren 14ko Agindua, zeinaren bidez ezartzen diren UPV/EHUren goi mailako hezkuntzako zerbitzu publikoen 2024-2025 ikasturterako prezioak, eta prezio horietatik salbuesteko eta horietan murrizketak izateko baldintzak.

Araudi horri jarraikiz, 2025eko Aurrekontuan bete egiten da gastu ez-finantzarioaren gehieneko muga ezartzeko betebeharra (Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12., 15. eta 30. artikulua), bai eta hezkuntza arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premia neurri buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuan ezarritako betebeharrak ere. Dekretu horrek aldatu egin zuen Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 81.2 artikulua idazketa. Honela gelditu zen: *"Para garantizar un mejor cumplimiento de la Ley Orgánica de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, las universidades deberán cumplir con las obligaciones siguientes:*

- a) Aprobarán un límite máximo de gasto de carácter anual, que no podrá rebasarse.*
- b) Los presupuestos y sus liquidaciones harán una referencia expresa al cumplimiento del equilibrio y sostenibilidad financieros".*

UPV/EHUren ustez, aurreko urteetan bezala, 2025eko Aurrekontuak printzipio hauek bete behar ditu: austeritatea gastuetan, efizientzia baliabideak kontsumitzean eta jasangarritasuna erabaki ekonomikoak hartzean.

2025eko ekitaldirako aurrekontua prestatzean, ikuspegi ekonomiko-finantzario batetik, aintzat hartu da sarrerak zenbatestean eta gastuak aurreikustean zuhur eta garden jokatzeko premia, gure eginahalak bideratzeko unibertsitatearen bideragarritasun eta jasangarritasun ekonomiko-finantzarioa.

Bestetik, UPV/EHUren 2025eko Aurrekontuak, aurrekoek bezala, kontuan hartu du 2022-2025 Plan Estrategikoa. Plan horrek aintzat hartu zituen 2021eko azaroaren 25eko Klaustroak plangintza estrategikorako onartu zituen oinarriak, eta 2022ko maiatzaren 24ko Gobernu Kontseiluak onartu zuen. Plan Estrategikoak finkatzen ditu gure

unibertsitateak haren indarraldiaren lau urteetan dituen lehentasunak, eta aukera ematen dio gizartea hobetzen laguntzeko helburuan sakontzeko, irakaskuntza eta ikerketa bikain baten bidez.

Planak unibertsitatearen ikuspegia zehazten du:

• *UPV/EHUk bere ikasleei ematen dien prestakuntza ikerketan eta pentsamendu kritikoan oinarrituta dago, metodo zientifikoa erabilia. Garapen jasangarriarekin inplikaturik dagoen prestakuntza bat da. Unibertsitateak aukera ematen die ikasleei beren buruak intelektuali eta giza ikuspegitik garatzeko, eta ingurunea eraldatzeko gaitasuna eskuratzen dute, modu etiko batean eta sormena erabilia, gero eta zorrotzagoa den ingurune aldakor batean.*

• *UPV/EHUk bere ikerketa eredu indartu nahi du, gizarte, kultura, ekonomia eta ingurumen arloetako erronka berrietara orientatua eta erronka horiekin konprometiturik, diziplinaz gaiturik eta nazioarteko lankidetzara sustaturik, baita ingurumen sozioekonomikoarekiko lankidetzara ere, jakintzaren bidez gizarte eraldaketan lider izateko bokazioarekin.*

• *UPV/EHU, Euskadiko erakunde ikertzaile nagusia izanik, aliatu natural gisa identifikatzen da trantsizio digitalaren, trantsizio energetikoaren eta kohesio digitalaren desafioei aurre egiteko lurraldean garatzen diren I+G+b proiektuetan.*

• *UPV/EHU bere inguruan sustraierik unibertsitate bat da, irekia eta iragazkorra, eta bi norabideko inplikaturik eragiteko helburua du. Erreferentzia eta identifikazio eredu izan nahi du euskal gizartearentzat.*

Egungo ziurgabetasunari erantzuteko, unibertsitatea murgilduta dagoen agertoki global eta aldakorretan aurrera egiteko, eta euskal gizartearentzat erreferentzia eta identifikazio eredu bihurtzeko, datoen urteetan garrantzi berezia eman nahi diegun hainbat eraldaketa elementu zehaztu ditugu.

Planak ditu 5 ardatz estrategiko (Prestakuntza; Ikerketa eta Transferentzia; Kultura eta Gizartea; Pertsonak; Gobernantza eta Baliabideak) eta 4 zeharkako ardatz (Nazioartekotzea; Eraldaketa Digitala; Garapen Jasangarriko Helburuak; Komunikazioa).

2025eko Aurrekontuan, % 4,33 handitu da Eusko Jaurlaritzaren ekarpena, eta 2024an 386,02 M€ izatetik 2025ean 402,8 M€ izatera igaro da. Hona hemen banakapena:

- Ekarpenera. Gastu arrunta: 315,6 M€ (% 5,24 gehiago aurreko ekitaldiko kopuruari dagokionez).
- Ekarpenera. Kapital gastua: 1,8 M€ (2024ko kopuruaren antzekoa).
- Gehigarrik ordainsari osagarriak: 19,9 M€-tik 18,5 M€-ra igaro da (% 7,04ko jaitsiera iazko kopuruari dagokionez).
- Urte Anitzeko Inbertsio Plana: 25 M€ (iazkoaren antzekoa).
- Programa kontratua: % 6,09ko gehikuntza 2024ari dagokionez, 39,43 M€-tik 41,83 M€-ra.

LOSUa ezartzeko, 5 M€-ko ekarpena aurreikusi da, 2025eko Estatuko Aurrekontu Orokorretatik.

II. Dokumentuaren egitura

2025eko Aurrekontuak hiru liburuki ditu. Lehenengoan bildu dira programen aurrekontuaren banaketa, finkatu diren helburuak, eskura dauden baliabideekin planteatu diren ekintzak, eta lortu nahi diren adierazleak; bigarrenean, organikoen aurrekontuaren xehetasuna, programetan eta azpiprogrametan; azkenik, hirugarrenean, aurrekontua betetzean bete behar diren arauak eta erregelamenduzko alderdiak.

Aurrekontuan, sarrerak eta gastuak aurreikusi dira, kontuan izanik eskura dauden baliabideak, hartutako konpromisoak eta ahalik eta eraginkortasun handienez egin nahi diren jarduerak.

Sailkapen ekonomikoari buruzko araudiari jarraiki, sarreren eta gastuen partiden zenbatekoak zehaztuko ditugu orain.

III. Gastuen analisia

Taulan ikus daitezke 2025eko eta 2024ko ekitaldietako kapituluak, konparatzeko:

	Aurrekontua	Aurrekontua	Aldea ehunekoetan	%
	2024	2025		
I. kapitulua	387.199.402,96	407.196.307,95	% 5,16	% 73,56
II. kapitulua	89.989.575,08	92.884.449,59	% 3,22	% 16,78
III. kapitulua	78.284,00	60.803,00	-% 22,33	% 0,01
IV. kapitulua	4.451.366,31	4.498.776,03	% 1,07	% 0,81
VI. kapitulua	47.341.592,65	47.049.076,43	-% 0,62	% 8,50
VIII. kapitulua	70.000,00	70.000,00	% 0,00	% 0,01
IX. kapitulua	1.451.111,00	1.468.992,00	% 1,23	% 0,27
Gizarte Kontseilua	450.000	350.000	-% 22,22	% 0,06
GUZTIRA	531.031.332,00	553.578.405,00	% 4,25	% 100,00

Gastuen aurrekontua 553.578.405 € da, iazko ekitaldikoa baino % 4,25 handiagoa.

Ondoren, gastu kapitulu bakoitzaren xehetasun nagusiak laburbilduko ditugu.

I. kapitulua (Pertsonala)

I. kapituluko gastua 407,2M€ da; hots, gastuen aurrekontu osoaren % 73,56.

Kapitulu hau kalkulatzean, kontuan hartu da ordainsarrietan egon litekeen % 2ko eta % 0,5eko (2024tik letorkeena) igoera. Kontuan hartu dira ere: Itzarri - Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundera bideratutako ehunekoa, pentsioen belaunaldien arteko ekitatearen gaineko zerga (MEI), Gizarte Segurantzaren elkartasunaren kotizazio gehigarria, ordainsari osagarriak eta UPV/EHUko langileen gainerako osagarrien igoera (antzinatasuna, irakaskuntzako merezimenduak, ikerketako merezimenduak...).

Bestetik, mantendu egin da unibertsitate tituluen matrikuletarako UPV/EHUko kideentzako laguntzen partida, aurre egiteko akordio eta hitzarmenetatik sortutako gastuari. Partida handitu egingo da, eskatutako laguntzen kopuruak gainditzen badu partidan zehaztutakoa.

Aurrekontua egitean, kontuan izan da pertsonalaren alorreko araudia.

- TEKAZEL langileen eta irakasle-ikertzaileen aldi baterako kontratazioak egingo dira soil-soilik ondo arrazoitutako eta atzera ezin daitezkeen presazko kasuetan.
- TEKAZEL langileen kasuan, ezinbestekoa izango dira dagokion unitatearen eskari arrazoitua eta Pertsonaleko Gerenteordetzaren baliozkotzea, premia larri eta atzeraezina justifikatzeko.

- Bitarteko funtzionarioak: Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legearen 28. artikulua araberak, bitarteko funtzionarioak izendatzean, aldi baterako programak onartu ahal izango dira, programa horietako zereginak lehendik dauden langileek bete ezin badituzte, ezohiko lanak badira edo helburua bada Administrazioaren jardura berri ez-egiturazkoak abiaraztea.

Oro har, aldi baterako programa horiek ez dute iraungo hiru urte baino gehiago, beste urtebetez luzatzeko aukera egongo bada ere, premia justifikaturen bat egonez gero. Programa luzatzeko, Pertsonaleko Gerenteordetzaren aldeko txostena beharko da.

Behin berrogeita zortzi hilabeteko epea igarota, ezin izango da onartu funtzio berberak edo antzekoak dituen beste programa bat.

- Lan kontratudun langileak: aldi baterako langileak kontratatzean, aintzat hartuko da araudi espezifikoak.
- TEKAZEL langileak kontratatu behar direnean lehentasunezko zat jotzen diren kanpo finantzaketa bidezko ikerketa zientifiko eta teknikoko proiektu zehaztetan laguntzeko, finantzaketa dagoela egiaztatu ondoren, proiektuaren helburuari buruzko txosten zehatz bat aurkeztu beharko da, eman beharreko zerbitzuen autonomia eta oinarria azalduta, bai eta proiektuaren iraupen zehatza ere. Baldintza hauek bete behar dira horretarako:

- 1.- Ikerketa proiektuaren azalpena, helburua laburbilduta.
- 2.- Iraupena, zehatza ez bada ere.
- 3.- Kontratuaren xedea.

II. kapitulua (Gastu arrunta)

Kapitulu honetako kopurua da gastuen aurrekontu osoaren % 16,78, eta barne hartzen ditu unibertsitatearen funtzionamenduaren gastu orokorrak, horien barne egonik unibertsitateko eraikinen mantentze-lanen eta funtzionamenduaren gastuak.

Iaz baino % 3,22 handiagoa da, hornidura gastuen igoeraren (elektrizitatea, gasa...) eta beste enpresa batzuek eginiko lanen handitzearen (garbiketa, informatika zerbitzuak...) aurreikuspenagatik.

III. kapitulua (Finantza gastuak)

Finantza gastuak dira UPV/EHUren aurrekontuaren % 0,01, eta barne hartzen dituzte Eusko Jaurlaritzak eta Ekonomia eta Enpresa Ministerioak (aurreko Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa) UPV/EHUri emandako maileguek ekitaldian sortutako interesak.

IV. kapitulua (Transferentziak eta dirulaguntzak gastu arrunterako)

Aurreproiektu osoaren % 0,81 da, eta Errektoreordetzetatik eginiko deialdietarako kopuruei dagozkie.

VI. kapitulua (Inbertsioak)

Garrantziari dagokionez, aurrekontuaren hirugarren kapitulua da (% 8,50), eta inbertsioetarako partidak biltzen ditu. Kapitulu honetan sartu da Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berrirako Urte Anitzeko Inbertsio eta Azpiegitura Planeko 25 M€-ko 2025eko urterokoa.

VIII. kapitulua (Finantza Aktiboen aldaketa)

Aurreko ekitaldian bezala, honetan ere sartu da matrikula tasa ordaindu ezin duten ikasleei dirulaguntza itzulgarriak emateko partida bat. Laguntza hauetarako partida mantendu da (100.000 €): 70.000 €, kapitulu honetan; gainerako 30.000 €-ak, IV. kapituluan.

IX. kapitulua (Finantza Pasiboak)

Kapitulu honetan sartu dira Eusko Jaurlaritzak eta Ekonomia eta Enpresa Ministerioak emandako maileguen printzipalak amortizatzeko urterokoak.

Bestetik, Hezkuntza Sailak unibertsitatearen bidez Gizarte Kontseiluari eginiko ekarpena iazkoa baino txikiagoa da.

1. laukia (Gastuak programen arabera)

	GASTUAK	2024ko AURREKONTUA	2025eko AURREKONTUA	2024/2025 ALDAKORTASUNA (%)
1	Irakaskuntza	240.646.380	256.579.332	% 6,62
1.1	Sailak. Graduko jarduerak	231.333.168	247.824.170	% 7,13
	I. kapitulua	229.128.033	245.592.385	% 7,19
	Gainerakoa	2.205.135	2.231.785	% 1,21
1.2	Ikastegiak	2.762.557	2.744.057	-% 0,67
	I. kapitulua	4.138	3.000	-% 27,50
	Gainerakoa	2.758.419	2.741.057	-% 0,63
1.3	Irakaskuntza Laborategietarako ekipamendua	1.790.055	1.702.005	-% 4,92
1.4	Unibertsitaterako sarbidea	930.000	948.500	% 1,99
	I. kapitulua	459.000	476.000	% 3,70
	Gainerakoa	471.000	472.500	% 0,32
1.5	3. zikloa: Doktorego programak eta doktorego tesiak	591.250	599.600	% 1,41
	I. kapitulua	0	0	% 0,00
	Gainerakoa	591.250	599.600	% 1,41
1.6	Berezko tituluak, masterrak eta graduondoko ikastaroak	2.911.850	2.436.000	-% 16,34
	I. kapitulua	1.100.000	1.100.000	% 0,00
	Gainerakoa	1.811.850	1.336.000	-% 26,26
1.7	Graduondoko programa ofizialak	327.500	325.000	-% 0,76
	I. kapitulua	0	0	% 0,00
	Gainerakoa	327.500	325.000	-% 0,76
2	Ikerketa	67.071.740	67.171.740	% 0,15
2.1	Ikerketa jarduera	2.743.740	2.825.740	% 2,99
	I. kapitulua	0	0	% 0,00
	Gainerakoa	2.743.740	2.825.740	% 2,99
2.4	Ikerketako Zerbitzu Nagusiak	175.000	175.000	% 0,00
	I. kapitulua	0	0	% 0,00
	Gainerakoa	175.000	175.000	% 0,00
2.5	Finantzaketa lotuko ikerketa jarduera	52.000.000	52.000.000	% 0,00
	I. kapitulua	25.500.000	25.500.000	% 0,00
	Gainerakoa	26.500.000	26.500.000	% 0,00
2.6	Ikerketa jarduera, LOSUren 60. artikulua	11.975.000	11.975.000	% 0,00

	I. kapitulua	3.200.000	3.200.000	% 0,00
	Gainerakoa	8.775.000	8.775.000	% 0,00
2.7	Unibertsitateko Biblioteka, ikerketan laguntzeko	178.000	196.000	% 10,11
3	Administrazio Gestioa eta Gastu Orokorrak	141.326.131	145.166.997	% 2,72
3.0	Administrazio Gestioa eta Gastu Orokorrak	140.063.010	143.883.876	% 2,73
	I. kapitulua	107.284.747	109.313.426	% 1,89
	Gainerakoa	32.778.263	34.570.450	% 5,47
3.1	TERAZEL prestakuntza	150.000	150.000	% 0,00
	I. kapitulua	65.850	65.850	% 0,00
	Gainerakoa	84.150	84.150	% 0,00
3.2	Ekintza soziala eta sindikala	872.311	892.311	%2,29
	I. kapitulua	710.000	720.000	% 1,41
	Gainerakoa	162.311	172.311	% 6,16
3.3	Administrazio ebaluazioa eta irakaskuntzakoa ez den ebaluazioa	77.600	77.600	% 0,00
	I. kapitulua	0	0	% 0,00
	Gainerakoa	77.600	77.600	% 0,00
3.4	Laneko Segurtasun eta Osasun garapena	110.000	110.000	% 0,00
	I. kapitulua	0	0	% 0,00
	Gainerakoa	110.000	110.000	% 0,00
3.5	Campusen ingurumen kudeaketa	33.210	33.210	% 0,00
3.6	Aldezlea	20.000	20.000	% 0,00
	I. kapitulua	0	0	% 0,00
	Gainerakoa	20.000	20.000	% 0,00
4	Hizkuntza	199.050	229.050	% 15,07
4.1	Euskararen erabileraren normalizazioa eta eleaniztasuna	91.000	121.000	% 32,97
	I. kapitulua	0	0	% 0,00
	Gainerakoa	91.000	121.000	% 32,97
4.2	Euskara Zerbitzua	108.050	108.050	% 0,00
	I. kapitulua	0	0	% 0,00
	Gainerakoa	108.050	108.050	% 0,00
5	Pertsonalaren Prestakuntza eta Ebaluazioa	675.400	675.400	% 0,00
5.1	Irakasleak	160.300	160.300	% 0,00

5.2	Irakaskuntza berrikuntza, irakaskuntza ebaluazioa eta datuen eta adierazleen kudeaketa I. kapitulua Gainerakoa	515.100 140.500 374.600	515.100 140.500 374.600	% 0,00 % 0,00 % 0,00
6	Ikasleak, Kirola eta Kultura	2.253.956	2.462.456	% 9,25
6.1	Ikasleen informazioa, ordezkaritza eta antolaketa I. kapitulua Gainerakoa	379.790 3.000 376.790	379.790 3.000 376.790	% 0,00 % 0,00 % 0,00
6.2	Kultura jarduerak I. kapitulua Gainerakoa	315.756 0 315.756	369.256 0 369.256	% 16,94 % 0,00 % 16,94
6.3	Kirol ekintzak I. kapitulua Gainerakoa	388.010 0 388.010	413.010 0 413.010	% 6,44 % 0,00 % 6,44
6.4	Egoitzak eta Ikastetxe Nagusiak I. kapitulua Gainerakoa	707.800 0 707.800	707.800 0 707.800	% 0,00 % 0,00 % 0,00
6.5	Unibertsitate Hedakuntza I. kapitulua Gainerakoa	120.000 0 120.000,00	140.000 0 140.000,00	% 16,67 % 0,00 % 16,67
6.6	Gizarte erantzukizuna I. kapitulua Gainerakoa	307.600 0 307.600	417.600 0 417.600	% 35,76 % 0,00 % 35,76
6.7	EHU Gune	35.000	35.000	% 0,00
7	Biblioteka	297.000	279.000	-% 6,06
7.1	Unibertsitateko Biblioteka I. kapitulua Gainerakoa	297.000 0 297.000	279.000 0 279.000	-% 6,06 % 0,00 -% 6,06
8	Eraikinen mantentze-lanak	4.018.145,00	4.144.195,00	% 3,14
8.1	Eraikinen mantentze-lanak	2.918.900	2.826.900	-% 3,15
8.2	Eraikinen berritu, handitu eta hobetzea	780.000	998.050	% 27,96
8.3	Altzariak	319.245	319.245	% 0,00
10	Urte Anitzeko Inbertsioa Campusak Garatzeko	25.000.000	25.000.000	% 0,00

11	Informatika	5.839.550	5.839.550	% 0,00
11.1	Informatika	5.839.550	5.839.550	% 0,00
	I. kapitulua	0	0	% 0,00
	Gainerakoa	5.839.550	5.839.550	% 0,00
12	Argitalpen Zerbitzua	599.780	599.780	% 0,00
120	Argitalpen Zerbitzua	599.780	599.780	% 0,00
	I. kapitulua	0	0	% 0,00
	Gainerakoa	599.780	599.780	% 0,00
14	Nazioarteko Harremanak	3.165.000	3.200.713	% 1,13
14.1	Nazioarteko Hedapena	3.165.000	3.200.713	% 1,13
	I. kapitulua	85.000	85.000	% 0,00
	Gainerakoa	3.080.000	3.115.713	1,16%
16	Kreditu globala	56.000	46.000	% 17,86
	Gizarte Kontseilua	450.000	350.000	-% 22,22
	GASTUAK, GUZTIRA	491.598.132	511.744.213	% 4,10

Xeheago aztertuta aurreko ekitaldiko kredituekiko aldeak, desberdintasun esanguratsuenak azalduko ditugu orain. Zehazki, funtzional hauetan:

- ✓ 1 programa (Irakaskuntza) % 6,62 igo da, aurrekontu arruntaren bidez finantzatutako irakasle-ikertzaileen gastuen gehikuntzagatik.
- ✓ 3 programa (Administrazio Gestioa eta Gastu Orokorrak) % 2,72 handitu da, gastu orokorren aurreikuspen handiago bategatik, kapitulu guztietan, I. kapituluaren izan ezik.
- ✓ 4 programa (Hizkuntza) % 15,07 igo da, unibertsitatean euskararen erabilera eta eleaniztasuna bultzatzeko beharragatik.
- ✓ 6 programa (Ikasleak, Kirola eta Kultura) % 9,25 handitu da, kultura jardueretan eta gizarte erantzukizunean eginiko inbertsioaren igoeragatik.
- ✓ 7 programak (Biblioteka) behera egin du (18.000 € gutxiago), kopuru bereko 2.7 partidaren (Unibertsitateko Biblioteka, ikerketarako laguntza gisa) igoerarekin berdintzen bada ere.
- ✓ 8 programaren (Eraikinen mantentze-lana) barruan sartzen dira campusetako eraikin eta instalazioen eraberritzeak eta hobekuntzak. % 3,14 igo da, arlo honetan egin beharreko hobekuntzengatik.

Azkenik, gastuen atalean duen pisuagatik, nabarmentzekoa da aurrekontuaren 10 funtzionalak (Urte Anitzeko Planeko inbertsioak campusak garatzeko) bildu dituela Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko obrei lotutako konpromiso kredituak (aurreko ekitaldiari dagokionez mantentzen dira).

Programa kontratua

	2024ko aurrekontua	2025eko aurrekontua	%
Programa kontratua	39.433.200,00	41.834.192,00	% 6
E11 - Patenteen erregistroa eta inpaktu handiko ikerketaren emaitzen transferentzia bultzatzea	350.000,00	400.000,00	% 14
E12 - Unibertsitate-Enpresa-Gizartea proiektuen deialdia sustatzea	375.000,00	400.000,00	% 7
E13 - Ikasketak amaitu dituzten egresatuen enplegarritasuna bultzatzea	150.000,00	175.000,00	% 17
E14 - Lanbide inguruneetako prestakuntza indartzea eta ikusaraztea, enpresetako praktiken bidez	110.000,00	115.000,00	% 5
E15 - Elkarlanean aritzea hainbat eragilerekin, ikerketaren emaitzak zabaltzeko eta zientzia bokazioak sustatzeko	300.000,00	300.000,00	% 0
E16 - Unibertsitatea + Enpresa ikasgelen sarea sustatzea eta indartzea	335.000,00	379.000,00	% 13
E17 - Ekintzailatza eta ezagutza transferentziako programak indartzea	100.000,00	100.000,00	% 0
E18 - Ikerketaren eta transferentziaren inpaktu sozialaren neurketa eta ikusgarritasuna bultzatzea	130.000,00	130.000,00	% 0
E19 - Unibertsitate-Enpresa sektorea duten titulazioen eta titulazio dualen mapa garatzea	160.000,00	175.000,00	% 9
E1A - Etengabeko prestakuntzaren eskaintza kudeatzeko ereduak sortzea eta garatzea	150.000,00	160.000,00	% 7
E1B - Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuak langileak indartzea	544.000,00	781.000,00	% 44
E1C - Hezkuntza - Ikerketa - Ekintza urte anitzeko plana garatzea	233.200,00	247.192,00	% 6
E21 - Parte-hartzea eta lidergoa bultzatzea nazioarteko deialdietan	250.000,00	250.000,00	% 0
E22 - GJHeikin eta RIS3 estrategiarekin bat datozen taldeen arteko diziplinaz gaindiko lankidetzak bultzatzea	275.000,00	300.000,00	% 9
E23 - Ikertzaile berrien eta emakume ikertzaileen lidergoa bultzatzea	275.000,00	300.000,00	% 9
E24 - Dauden ikertaldeei eta talde berriei laguntzea	1.000.000,00	1.050.000,00	% 5

D25 – Talentua erakartzeko estrategia garatzea	500.000,00	600.000,00	% 20
E26 - Prestakuntza kontratuen programak bultzatzea eta babestea	7.725.000,00	8.000.000,00	% 4
E27 - Mugikortasun programak eta ikerketa egonaldiak bultzatzea	450.000,00	450.000,00	% 0
E28 - Baliabide bibliografikoak ematea komunitate zientifikoari (pertsonal berekia)	4.710.000,00	4.910.000,00	% 4
E29 - Baliabide bibliografikoak ematea komunitate zientifikoari (BERC eta Ikerbasque)	300.000,00	300.000,00	% 0
E2A - Abangoardiako ikerketa bultzatzeko azpiegiturak indartzea	1.500.000,00	1.500.000,00	% 0
E2B - Inpaktua duen ikerketa jarduera ebaluatzea eta aitortzea	2.000.000,00	2.000.000,00	% 0
E31 - Graduoko eta graduondoko eskaintza egokitzea eta eguneratzea	900.000,00	1.000.000,00	% 11
E32 - Prestakuntza berritzailea bultzatzea	150.000,00	175.000,00	% 17
E33 - Titulazio ofizialen kalitatea ziurtatzea eta etengabeko prestakuntzaren kalitate prozesuak optimizatzea	150.000,00	175.000,00	% 17
E34 - IKD i3 ereduarekin koherenteak diren HBPa bultzatzea	325.000,00	325.000,00	% 0
E35 - Eraldaketa digitala eta ez-presentzialtasunean oinarritutako irakaskuntzaren definizioa eta garapena bultzatzea	325.000,00	325.000,00	% 0
E36 - Plaza eskaintza handitzea Osasun Zientzien ikasketetan	1.875.000,00	2.400.000,00	% 28
E37 - 23-26 Unibertsitate Sistemaren Planarekin bat datorren irakaskuntza berrikuntza ebaluatzea eta aitortzea	4.000.000,00	4.000.000,00	% 0
E41 - Nazioartekotze bektorea duten titulazioen mapa bultzatzea	300.000,00	300.000,00	% 0
E42 - Talentuko nazioarteko ikasleak eta irakasle-ikertzaileak erakartzea eta zaintzea	407.000,00	429.000,00	% 5
E43 - Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen erreferentziako plantillak helburu estrategikoetara egokitzea	80.000,00	90.000,00	% 13
E44 - Ikerketa harremanak sustatzea Latinoamerikarekin	70.000,00	70.000,00	% 0

E45 - Lankidetza indartzea ENLIGHT partzuergoko unibertsitateekin, EUSKAMPUS Fundazioaren bidez	130.000,00	140.000,00	% 8
E46 - Digitalizazioa bultzatzea, lankidetza areagotzeko ENLIGHT partzuergoko unibertsitateekin	125.000,00	150.000,00	% 20
E47 - Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetak langileak indartzea	748.000,00	1.136.000,00	% 52%
E48 - Ikerketa harremanak sustatzea Latinoamerikarekin Irakaskuntza	30.000,00	30.000,00	% 0
E51 - Lan modu eta formatu malguagoak sartzear pixkanaka	60.000,00	100.000,00	% 67
E52 - Genero berdintasunean aurrera egitea UPV/EHU	160.000,00	175.000,00	% 9
E53 - Azpiegiturak hobetzeko eta egokitzeko urte anitzeko plan berezia gauzatzea	5.900.000,00	5.900.000,00	% 0
E54 - Mugikortasun jasangarriko planak onartzea garraio publikoan edo autoaren ordezkoko garraio bideetan	80.000,00	130.000,00	% 63
E55 - Garapen Jasangarriko 2030 EHUagenda garatzea eta sendotzea	180.000,00	200.000,00	% 11
E56 - Behar bereziak dituzten kolektiboek laguntzeko programak bultzatzea	200.000,00	210.000,00	% 5
E57 - UPV/EHUko kide izatearen sentimendua indartzea	100.000,00	100.000,00	% 0
E58 - Administrazio elektronikoa adeitsua garatzea (leihatila bakarra)	100.000,00	110.000,00	% 10
E59 - Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea unibertsitateko kideen artean	980.000,00	1.000.000,00	% 2
E5A - Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetak langileak indartzea	136.000,00	142.000,00	% 4

- ✓ Programa Kontratuaren funtzionalei dagokienez, aipatzekoak dira Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetak langile taldea indartzeko funtzionalak. E1B funtzionala igaro da 544.000 €-tik 781.000 €-ra (% 44ko igoera TEKAZEL langileak unibertsitate-enpresa ardatzean kontratatzeke); E47 partida, 748.000 €-tik 1.136.000 €-ra; hau da, % 52 handitu da TEKAZEL kontratazioa unibertsitatea-Euskadi ardatzean.
- ✓ Ehunekoetan gehien handitu diren partidak honako hauek dira: "E51- Lan modu eta formatu malguagoak sartzear pixkanaka" (% 67ko igoera) eta "E54 - Mugikortasun

jasangarriko planak onartzea garraio publikoan edo autoaren ordezkoko garraiobideetan” (% 63ko igoera).

- ✓ Termino absolutuetan, “E26 - Prestakuntza kontratuen programak bultzatzea eta babestea” funtzionalak du zenbatekorik handiena, 8.000.000 €-rekin, % 4ko igoerarekin aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero; ondoren, “E53 - Azpiegiturak hobetzeko eta egokitzeko urte anitzeko plan berezia gauzatzea” funtzionalak, 5.900.000 €-rekin, aurreko ekitaldiari dagokionez mantentzen dena.

Sarrerak

2. laukia (Sarrerak)

SARRERAK	2024ko AURREKONTUA	2025eko AURREKONTUA	2024/2025 ALDAKORTASUNA (%)
BESTEREN BALIABIDEAK	386.082.332,00	402.794.688,00	% 4,33
EAE Transferentzia arruntak	299.949.027,00	315.660.496,00	% 5,24
EAE Irakasleen osagarriak	19.900.105,00	18.500.000,00	-% 7,04
EAE Programa kontratua	39.433.200,00	41.834.192,00	% 6,09
EAE Kapital transferentziak	1.800.000,00	1.800.000,00	% 0,00
EAE Urte Anitzeko Planeko transferentziak	25.000.000,00	25.000.000,00	% 0,00
BALIABIDE BEREKIAK	53.099.000,00	52.278.717,00	-% 1,54
Tasa akademikoak	32.770.000,00	33.828.717,00	% 3,23
Tasa akademikoak ordaintzeko laguntzak	9.909.000,00	9.000.000,00	-% 9,17
% 0,7 ikasleen tasak	20.000,00	20.000,00	% 0,00
Administrazio tasak	2.000.000,00	1.500.000,00	-% 25,00
Argitalpen Zerbitzua	700.000,00	400.000,00	-% 42,86
Beste berezko sarrera batzuk	5.900.000,00	5.900.000,00	% 0,00
Egoitzak	1.300.000,00	1.300.000,00	% 0,00

Administrazio emakidak	400.000,00	230.000,00	-% 42,50
Finantza zerbitzuetarako kontratua	100.000,00	100.000,00	% 0,00
BESTE SARRERA BATZUK	91.400.000,00	98.155.000,00	% 7,39
Ranpoko kontratuak	12.500.000,00	12.500.000,00	% 0,00
Eragindako finantzaketa: ikerketa proiektuak	52.000.000,00	53.000.000,00	% 1,92
Berezko tituluen tasak	1.600.000,00	1.630.000,00	% 1,88
Berezko tituluetarako laguntzak	1.300.000,00	800.000,00	-% 38,46
Nazioarteko Harremanetarako laguntzak	3.000.000,00	3.000.000,00	% 0,00
LOSU ezartzeko ezohiko sarrerak	5.000.000,00	5.000.000,00	% 0,00
Beste ezohiko sarrera batzuk	16.000.000,00	22.225.000,00	% 38,91
GIZARTE KONTSEILUA	450.000,00	350.000,00	-% 22,22
SARRERAK, GUZTIRA	531.031.332,00	553.578.405,00	% 4,25

Bigarren laukian, zehatz-mehatz jaso dira 2024ko eta 2025eko ekitaldietako sarreren partidak, bai eta urte bien arteko aldakortasuna ere.

Partidarik garrantzitsuenetan izandako aldaketak hauek dira:

- ✓ % 5,24 igo da EAEk gastu arrunterako eginiko ekarpen arrunta aurreko urteari dagokionez.
- ✓ % 7,04 murriztu da irakasleen osagarrietarako ekarpena aurreko urtearekin alderatuta.
- ✓ % 6,09 handitu da Programa Kontratuaren 2025. urterako ekarpena.
- ✓ Kapital gasturako ekarpena iazkoa bezalakoa izan da: 1,8 M€.
- ✓ Inbertsioen Urte Anitzeko Plana: 25M €-ko aurrekontua egin da, bat datorrena Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berria eraikitzeko Inbertsio eta Azpiegituren Urte Anitzeko Planaren 2025. urtealdiarekin.
- ✓ % 1,54 jaitsi da baliabide berekiengatiko diru sarrerren aurreikuspena, batik bat zuzendu egin delako Argitalpen Zerbitzuaren sarrerren aurreikuspena eta murriztu, aldiz, administrazio emakidengatiko sarrerena.
- ✓ Mantendu egin da LOSU ezartzeko 5 M€-ko partida.
- ✓ 22,22 M€-ko ezohiko ekarpena aurreikusi da.
- ✓ Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Unibertsitatearen bidez Gizarte Kontseilura bideratzen duen ekarpena 100.000 € txikiagoa da, iazkoarekin alderatuta (hau da, % 22,22 gutxiago).